MUSÉE BASQUE ET DE L'HISTOIRE DE BAYONNE
BAIONAKO EUSKAL MUSEOA



A. Duperret. © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne – Baionako Euskal Museoa

Le Fond de Bain

Une aventure journalistique savoureuse créée par Hermann-Paul de 1895 à 1898 à Guéthary au Pays Basque

Hermann-Paul-ek 1895etik 1898ra Euskal Herrian, Lapurdiko Getarian sortutako kazetaritza-abentura zaporetsua

Exposition-dossier **Erakusketa-txostena**
Du 18 septembre 2026 au 10 janvier 2027 **2026ko irailaren 18tik 2027ko urtarrilaren 10a arte**
Salle XIXe siècle **XIX. mendeko gela**

Commissariat **Komisarioa**

Sabine Cazenave, directrice et conservatrice en chef **Zuzendaria eta kontserbazio burua**
Aurélie Despérières, historienne et autrice **Historialaria eta idazlea**
À l'occasion de l'exposition, Aurélie Despérières a publié l'ouvrage :
Hermann-Paul, art et satire au Pays Basque*, *de la Belle Époque à la Grande Guerre
Aurélie Despérièresek erakusketaren karietara liburu hau argitaratu du

Prêteurs **Mailegu-emaileak**

- Établissement public des Musées d'Orsay et de l'Orangerie, Centre de ressources et de recherche Daniel Marchesseau **Orsay eta Orangerie Museoetako eraikin publikoa, Daniel Marchesseau ikerketa gunea**
- Bibliothèque Nationale de France **Frantziako Liburutegi Nazionala**
- Famille Igersheim et les descendants des familles Colin et Hermann-Paul **Igersheim familia eta Colin eta Hermann-Paul familien ondorengoak**
- Mairie et Musée des Saintes-Maries-de-la-Mer **Saintes-Maries-de-la-Mer-eko Herriko Etxea eta Museoa**
- Mairie de Toulouse – Bibliothèque municipale **Okzitaniako Tolosako Herriko Etxea – Udal-liburutegia**
- Mary-Anne, Charles Prunet

Remerciements Eskerrak

Le Musée Basque et de l'histoire de Bayonne adresse ses plus sincères remerciements à tous ceux qui ont contribué à la réussite de cette exposition **Baionako Euskal Museoak eskerrik beroenak zuzendu nahi dizkie erakusketa honen arrakastan lagundu duten guziei**

Et particulièrement pour l'édition **Eta batez ere argitalpenarentzat :** Mary-Anne et Charles Prunet, Fondation Roi Baudouin **Fundazioa** (Belgique-**Belgika**) ; La Société des Amis du Musée Basque **Euskal Museoaren adiskideen elkartea** ; Emilie Gangnat, Ann-Sarah Laroche (Médiathèque de Bayonne-**Baionako Mediateka**)

Présentation Aurkezpena

L'exposition-dossier met en lumière les collections du Musée Basque qui témoignent de la carrière de René Georges Hermann Paul (dit Hermann-Paul), mais aussi des artistes Charles et Gustave Colin, père et fils, à Paris comme au Pays Basque. À cette occasion, a été édité l'ouvrage de la spécialiste de l'artiste, Aurélie Despérières : ***Hermann-Paul, art et satire au Pays Basque, de la Belle Époque à la Grande Guerre***.
L'exposition accueille également de généreux prêts du Musée d'Orsay et de la Bibliothèque Nationale de France, de descendants de la famille, de collectionneurs privés.
Elle prend place dans l'espace XIXe siècle et raconte comment Hermann-Paul fonde à Guéthary, avec un cercle d'amis, un journal satirique qui campe de manière savoureuse et potache la difficile rencontre entre les touristes et la population locale. Leur point de vue étant situé dans un entre-deux : ils sont Parisiens certes, mais séjournent plus de la moitié de l'année au Pays Basque.

Erakusketa-txostean honek René Georges Hermann Paul (Hermann-Paul deitua) eta Colin aita-semeen ibilbideak erakusten dituzten Euskal Museoko bildumak nabarmentzen ditu, izan Parisen ala Euskal Herrian zirelarik. Kari honetara, Halaber, erakusketa honek Orsay Museoa eta Frantziako Liburutegi Nazionalaren, familiaren ondorengoen eta, azkenik, bildumagile pribatuen mailegu eskuzabalak Baionan jasotzeko aukera ematen du.
XIX. mendeko gela kokatu zen eta Hermann-Paul-ek eta bere lagun-taldeak, Getarian, aldizkari satiriko bat nola sortu zuten kontatzen da ; aldizkari honek turisten eta bertako biztanleen arteko topaketa zaila modu zaporetsu eta bihurrian islatzen du. Haien ikuspuntua erdibidean kokatzen da: paristarrak dira, bai, baina urtearen erdia baino gehiago Euskal Herrian igarotzen dute.

Photo à venir... *A. Duperret. © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne – Baionako Euskal Museoa*

Hermann-Paul : une carrière parisienne - ibilbide paristarra

Hermann-Paul collabore très tôt à de nombreux journaux satiriques : *Le Courrier Français* à partir de 1894, *Le Rire* de 1894 à 1933, *Le Sourire* de 1899 à 1913, *L'Assiette au Beurre* de 1901 à 1911, etc. Il excelle dans la critique des mœurs de ses contemporains, notamment de celle des bourgeois. Ses idées pacifistes, antimilitaristes et anticléricales s'expriment également dans des caricatures puissantes. Dreyfusard convaincu, il met son crayon au service de la défense du capitaine Alfred Dreyfus et en 1899, couvre pour *Le Figaro*, le procès en révision à Rennes, ce qui lui offre rapidement une belle notoriété tant cette affaire passionne et divise la France entière. Membre actif de l'avant-garde parisienne, il participe à l'âge d'or de la lithographie, réalisant plusieurs suites et épreuves isolées. Et avec la naissance de la « réclame », il mène une belle carrière d'affichiste.
Durant cette période, il croque les paysages de la Côte Basque sur de nombreux carnets de croquis conservés au musée d'Orsay. Se mêlent aux portraits de jurés de l'affaire Dreyfus, des dessins figurant son épouse et ses enfants mais aussi les silhouettes reconnaissables de la Rhune et de la campagne basque. Nombreux sont les dessins satiriques parus dans les journaux nationaux à l'image de *Marée montante* dans *Le Cri de Paris* (21 mai 1899) ou de ceux du numéro de *L'Assiette au Beurre* « C*hez les Jésuites, une visite au Monastère de saint Ignace de Loyola et au village d'Azpeitia* » (24 septembre 1904) qui prennent pour décors le Pays Basque.

Hermann-Paul-ek fite ohartu zen prentsa bera eta eskaintzen zuen "askatasun" berria egokiagoak litzaizkiokela marrazkilari gisa zuen talentu handiarentzat eta haren ibilbidearen garapenerako. Laster aldizkari satiriko askotan parte hartu zuen: *Le Courrier Français* 1894tik goiti, *Le Rire* 1894tik 1933ra, *Le Sourire* 1899tik 1913ra, *L'Assiette au Beurre* 1901etik 1911ra, etab. Hermann-Paul haren garaikideen ohituren kritikan gailentzen zen, hala nola burgesenean. Zituen ideia bakezaleak, antimilitaristak eta antiklerikalak karikatura boteretsuetan adierazten zituen. Dreyfus-en errugabetasunaz konbentzitua, Alfred Dreyfus kapitainaren defentsaren alde marraztu zuen, eta, 1899an, Rennes-en gertatu zen epaiketaren berri eman zuen *Le Figaro* egunkariarentzat. Hortik, ospe handia lortu zuen berehala, auziak Frantzia osoan interes handia piztu eta gizartea zatitu baitzuen.

Parisko abangoardismoko kide aktiboa izan zen, eta litografiaren urrezko aroan parte hartu zuen, hainbat serie eta proba isolatu eginez. Publizitatearen sorrerarekin batera, kartelgile gisa ibilbide ederra izan zuen ere.

Garai horretan, euskal kostaldeko paisaiak zirriborratu zituen, gaur egun Orsay museoan dauden hainbat krokis liburuxkatan: Dreyfus auziko epaimahaikideen erretratuak, emaztea eta seme-alabak irudikatzen dituzten marrazkiak, baina baita Larrun eta euskal baserrialdearen silueta ezagunak ere. Frantziako egunkarietan argitaratutako marrazki satiriko ugarik, hala nola *Le Cri de Paris* astekarian ateratako *Marée montante*-ek *(Goranzko marea*, 1899ko maiatzaren 21a) edo *L'Assiette au Beurre* astekariko "Chez les Jésuites, une visite au Monastère de saint Ignace de Loyola et au village d'Azpeitia" *(Jesuitekin, Loiolako San Ignazioren Monasterioa eta Azpeitiko herria bisitatzen*, 1904ko irailaren 24a) alean ateratakoek, Euskal Herria dute eszenatoki

Le Fond de Bain, une aventure journalistique à Guéthary à la Belle Époque
Le Fond de bain, kazetaritza-abentura Lapurdiko Getarian Belle Epoque garaian

Hermann-Paul est un excellent dessinateur et caricaturiste mais il est aussi graveur, xylographe, aquafortiste et peintre, bien que cette dernière partie de son œuvre soit encore méconnue. Installé à Guéthary à partir de 1890, il fait de nombreux allers-retours à Paris et signale à Lucien Puech, qui l'interroge sur sa vie d'artiste pour *L'Album* dont le n°12 de mai 1902 lui est consacré : « *Oh, bien tranquille. Je suis marié, je vis beaucoup chez moi et … c'est tout* ». Il y a tout lieu de penser que l'artiste est accaparé, durant les premières années de son mariage, par ses enfants et sa vie de famille, particulièrement lorsqu'il est au Pays Basque. Cependant, on s'interroge sur la manière dont il gère ses allers-venues à Paris et son œuvre : il est probable que, comme d'autres artistes de l'époque, il est principalement à Paris l'hiver et qu'il revient passer l'été au Pays Basque. En 1895, il fonde avec ses amis basques et parisiens ***Le Fond de Bain***, un journal saisonnier qui décrit de manière satirique et fantaisiste le choc culturel et la rencontre savoureuse entre les habitants de Guéthary et plus largement de la Côte Basque, avec les touristes. Il paraîtra 21 numéros entre 1895 et 1898 : les onze premiers sont manuscrits et réalisés grâce à la technique de la lithographie, les dix derniers sont typographiés.
Au cours de la Première Guerre mondiale, Hermann-Paul collabore au *Courrier de Bayonne* et du Pays Basque avec des dessins à charge contre les Allemands dont l'écrivain Anatole France loue le caractère incisif. Il éditera même un tiré à part de vingt dessins : « … *qu'elle est tragique et belle, votre dernière planche où l'on voit l'enfant aux mains coupées portant l'épée vengeresse !* ». Durant la guerre, il exécute au canif plusieurs gravures sur bois admirables. Non content d'en faire des tirages, il conserve les matrices qu'il colore comme de véritables petits tableaux. Le musée en conserve deux dans ses collections : *La jeune fille de Ciboure* et *Vue de Ciboure* (femmes et enfant). Ces premières tentatives riches en détails, le conduiront à une synthèse puissante qui caractérise son œuvre d'après-guerre lorsqu'il illustre *L'Enfer de Dante* (1924) ou compose la *Danse macabre* (1919). Ses bois deviennent alors caractéristiques du style Art Déco. Puis Hermann-Paul après avoir divorcé de sa première femme Joséphine Colin, quitte peu à peu le Pays Basque pour la Camargue où il fréquente l'écrivain Folco de Baroncelli-Javon (1869-1943)…

Hermann-Paul marrazkilari eta karikaturagile bikaina zen, baina grabatzailea, xilografoa, akuafortista eta margolaria ere bazen, nahiz eta haren obraren azken zati hau oraindik ez den ezaguna. 1890ean Getarian finkatu zen eta maiz joaten zen Parisera. Hari buruz izan zen 1902ko maiatzeko L'album-ren alerako Lucien Puech-ek artista biziari buruz galdetu zionean, Hermann-Paulek hauxe erantzun zion: "Ba, zinez lasaia. Ezkondua naiz, denbora ainitz pasatzen dut etxean eta… besterik ez". Dudarik gabe, lehen urteetan, familiak eta haurrek denbora ainitz hartuko zioten, bereziki Euskal Herrian zelarik. Hala ere, ez da oraindik argi nola kudeatzen zituen Pariserako bidaiak eta obra: litekeena da, garai hartako beste artista batzuk bezala, batez ere Parisen bizi zela neguan eta Euskal Herrira itzultzen zela udan. 1895ean, Le Fond de Bain udako aldizkaria sortu zuen Euskal Herriko eta Parisko lagunekin. Bertan, Getariako eta euskal kostaldeko biztanleen eta turisten arteko talka kulturala eta topaketa zaporetsua modu satiriko eta fantasiatsuan deskribatzen zen. 21 zenbaki argitaratu ziren 1895 eta 1898 artean: lehen hamaikak eskuz idatzi eta litografiaren teknikaren bidez egin ziren; azken hamarrak tipografiatu ziren.
Lehen Mundu Gerran, Hermann-Paulek Courrier de Bayonne et du Pays Basque aldizkarian parte hartu zuen, Alemanen aurkako marrazkiak eginez. Anatole France idazleak marrazkien alde samina goraipatu zuen. Hogei marrazki zeramatzan edizio berezia argitaratu zuen ere: "Zein tragikoa eta ederra den zure azken marrazkia, non haurra eskuak moztuta ikusten den ezpata

mendekatzailea daramala!".
Gerra garaian, zurezko hainbat grabatu miresgarri egin zituen ere labanaz. Tiradak egitea nahikoa ez zitzaionez, matrizeak atxiki zituen margolan txikiak bezala margotu ahal izateko. Lan horietako bi gure bildumetan daude: La jeune fille de Ciboure (Ziburuko andere gaztea) eta Vue de Ciboure (femme et enfant) (Ziburuko bista [anderea eta haurra]). Xehetasunez jositako lehen bi saiakera horiek, gerraosteko haren lanaren sintesi indartsu batera eramango zuten, 1924an l'Enfer de Dante (Danteren infernua) ilustratu zuenean edo 1919an Danse macabre (Dantza makabroa) konposatu zuenean. Egiten zituen zurezko lanak Art Déco estiloaren ezaugarri bihurtu ziren orduan.
Orduan, lehen emazte Joséphine Colin-engandik dibortziatu ondoren, Euskal Herria emeki-emeki utzi eta Camargara joan zen. Han Folco de Baroncelli-Javon idazlea (1869-1943) haren lagunetako bat bihurtu zen.

Photo à venir... *A. Duperret. © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne – Baionako Euskal Museoa*

Visuels Irudiak

Cliquer **ici** pour télécharger **Hemen** klikatu deskargatzeko

René Georges Hermann Paul, dit Hermann-Paul **deitua** (1864 -1940). *Vue de Ciboure*, matrice xylographique. ***Ziburuko bista*, xilografia**. 1914. © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne - *Baionako Euskal Museoa*	
René Georges Hermann Paul, dit Hermann-Paul **deitua** (1864 -1940). *Ciboure*, matrice xylographique. ***Ziburu*. xilografia** 1914. © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne - *Baionako Euskal Museoa*	
René Georges Hermann Paul, dit Hermann-Paul **deitua** (1864 -1940). *Femme assise **Jarria emazte dagoena***. Dessin **Marrazki** © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne - *Baionako Euskal Museoa*	

Autour de l'exposition Erakusketaren inguruan

Renseignements - **argibideak** : **www.musee-basque.com**

Conférence – Hitzaldia

Jeudi 19 novembre **-Azaroaren 19a osteguna**
Fond de bain avec Aurélie Despérières

Photo à venir… *A. Duperret. © Musée Basque et de l'histoire de Bayonne – Baionako Euskal Museoa*

Le Musée Basque et de l'histoire de Bayonne Baionako Euskal Museoa



« ***Hemen sartzen dena, bere etxean da****... Celui qui entre ici est chez lui...* »

Bienvenue dans ce *Musée de France* qui rassemble la plus riche collection consacrée à la vie en société en Pays Basque Nord *(Iparralde).* La Maison Dagourette, rare et belle demeure portuaire du XVIIe siècle, aujourd'hui classée *Monument historique,* accueille le Musée Basque depuis son ouverture en 1924. À la faveur d'une grande rénovation en 2001, des espaces contemporains vastes et lumineux ont été adossés à l'ancienne bâtisse, offrant confort et fluidité au parcours de visite.
Autour d'un grand puits de lumière *(Argialde)*, une vingtaine de salles thématiques s'articulent sur trois niveaux dévoilant les multiples aspects de la culture basque : origines et langue, rites funéraires, vie rurale et architecture, vie domestique et artisanat, activités maritimes et fluviales, fêtes et jeux, histoire régionale. La section consacrée à l'histoire de Bayonne, évoque les sociétés basques et gasconnes à la confluence des rivières Nive et Adour et l'ouverture sur l'océan. Chaque année, une exposition temporaire met en lumière une thématique, un artiste, un aspect de l'art et de la société au Pays Basque.
À deux pas du musée, sur les hauteurs de la place Paul-Bert, l'aile nord de Château-Neuf, (forteresse classée du XVe siècle), abrite la Bibliothèque - Centre de documentation du musée, l'une des structures les plus riches dans le domaine basque avec ses 30 000 documents anciens et contemporains, manuscrits, livres, journaux, revues…

Ongi etorri Ipar Euskal Herriko gizarte-bizitzari buruzko bilduma aberatsena biltzen duen Frantziako Museora. Dagourette etxeak, XVII. mendeko portu-etxe bitxi eta ederra, gaur egun monumentu historiko gisa sailkatua, Euskal Museoa errezebitzen du 1924an ireki zenetik.
2001ean asko berritu zenez, gaur egungo espazio zabal eta argitsuak eraikin zaharrean jarri dira, bisita-ibilbide berriari erosotasuna eta arintasuna eskainiz.
Argi-putzu handi baten inguruan (Argialde), gaikako hogei bat gela daude hiru mailatan antolatuta, euskal kulturaren alderdi guztiak azaltzeko: jatorria eta hizkuntza, hileta-errituak, landa-bizitza eta arkitektura, etxeko bizitza eta artisautza, itsasoko eta ibaietako jarduerak, bestak eta jokoak, eskualdeko historia.
Baionako historiari buruzko atalak euskal gizarteak eta gaskoninak gogorarazten ditu, Errobi eta Aturri ibaien elkargunean eta ozeanorako irekieran.
Urtero, aldi baterako erakusketa batek gai bat, artista bat, euskal artearen eta gizartearen alderdi bat nabarmentzen ditu.
Museotik bi urratsera, Paul-Bert plazaren altueran, Gaztelu Berriaren iparraldeko hegalean (XV. mendeko gotorleku sailkatua), Liburutegia - Museoko dokumentazio-zentroa plantatua da, euskal esparruko egitura aberatsenetako bat, 30.000 dokumentu zahar eta garaikide, eskuizkribu, liburu, egunkari, aldizkari eta abar dituena.

La programmation culturelle Egitarau kulturala



Juillet à décembre 2026 - 2026ko uztailetik abendura

Informations pratiques Argibide praktikoak

Le musée est ouvert toute l'année.
Fermé les lundis, jeudis matin et les jours fériés,
sauf le 14 juillet et le 15 août. Fermé du 17 au 19 juillet (Fêtes de Bayonne).

Horaires
Mardi, mercredi, vendredi, samedi et dimanche : de 10 h à 18 h. Le jeudi : de 13 h à 20 h.

Tarifs
Plein tarif : 11€ - tarif réduit : 8€
Gratuit pour les moins de 26 ans.
Gratuit le jeudi de 18 h à 20 h.
Gratuit pour tous, le 1er dimanche de chaque mois.

37 quai des Corsaires - Bayonne. Tél : + 33 (0)5 59 59 08 98
Informations et réservations : contact@musee-basque.fr

Urte osoan museoa asteartetik igandera idekia da.
Hetsia astelehenetan, ostegun goizero, pesta egunetan salbu uztailaren 14a eta agorrilaren 15a.
Uztailaren 17a, 18a eta 19a, hetsia izanen da (Baionako Pestak).

Ordutegiak
Asteartea, asteazkena, ostirala, larunbata, igandea: 10:00 - 18:00.
Osteguna: 13:00 - 20:00.

Tarifak
Prezio betea: 11€ - Prezio murriztua: 8€
Urririk 26 urtetik beherako jendearentzat
Urririk 18:00 - 20:00 ostegunak
Urririk hilabete bakoitzeko lehen igandean.

Kortsarioen kaia 37 – Baiona / Tel: + 33 (0)5 59 59 08 98
Argibide praktikoak eta erreserbatzeak



Facebook, Instagram, Bluesky

www.musee-basque.com

***